

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2024ko martxoaren 13an ospatutako auzoko bilkuran egindako laburpena. Bertaratutako kideek aho batez erabaki zuten, besteak beste, 2024ko ekitaldiko kultura, kirol, gizarte eta euskara programak antolatzeko diru-laguntzen deialdia (139/2024 espedientea)

BDNS (Identif.): 751501.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/751501>).

Lehenengoa. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradun honakoak izan daitezten:

— Gizarte, kirol edo kultur jarduera duten elkarteak edo taldeak, publikoak eta pribatuak, irabazi asmorik gabeak, eta legearen arabera eratuta eta erregistratuta dauden udalez peko erakundeak, egoitza soziala Urkabustaizko udalerriaren barruan dutenak. Salbuespen izango dira beste udalerriak izanda udalerri honetako ikasleak dituzten ikastetxeetako guraso elkarteak eta dirulaguntza eskatzen dituzten ekintzetan parte hartzen badute.

Bigarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

2.1. Diruz lagundu ahal izango dira, lehentasunez, Urkabustaizko udalerriaren lurralde-eremuan egiten diren jarduerak, honako esparruen barruan: kultura, aisialdia, euskara eta kirola. Ondorengoek izango dute lehentasuna:

- Urkabustaizko udalerrian gizarte ongizatea sustatzen dutenak.
- Euskararen erabilera bultzatu eta sustatzen duten programak egiten dituztenek.
- Herritarren parte hartzea bultzatzen dutenak.
- Udalerriaren sustapena egiten dutenak.
- Kulturaren, euskararen eta kirolaren zabalkundea eta sustapena, modu orokorrean edo tokian tokikoa bultzatuz, egiten dutenak.
- Kirol praktikorako eta kulturarako sarbidea errazten duten jarduerak diseinatzeko dituztenek.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko ekintzak eta/edo programak sustatzen dituztenek, eta/edo gutxietsita edo bazterkeria arriskuan dauden kolektiboak kontuan hartzen dituztenek.
- Bertako tradizioak berreskuratzea sustatzen dutenak.
- Honako jarduerak egiten dituztenek: gazteen aisialdian arriskuen prebentzioa, aisialdiko jarduerak, bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak, ezintasunak dituztenei zuzendutako jarduerak, gazteek gizartean duten papera sustatu eta indartzeko helburua duten jarduerak.

2.2. Entitate bakoitzak lau programa, gehienez, aurkez ditzake.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza hauek emateko oinarri arautzaileak kultura, euskara, kirol eta/edo gizarte arloko jarduerak eta lehiaketa federatu-kirol jarduerak antolatzeko udal diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzan jasota daude.

Onartutako aldaketaren ondoren, testu osoa ALHAOn argitaratu zen (67 zk., 2010eko ekainaren 18koa).

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleitu dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 3340481000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2024rako aurrekontuko kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerak antolatzeko, euskara sustatzeko eta/edo gizarte-arloko jardueretarako diru-laguntza gisa.

Udalak programaren kostu osoaren ehuneko 80ra arteko diru-laguntza eman ahal izango du.

Hala ere, udal honek tramitazio berezia eman ahal izango du udal-interes bereziko programa jakin batzuetarako, eta programaren kostuaren ondoriozko defizitaren ehuneko 100era iritsi ahal izango da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

Urteko programen edo proiektuen eskaerak aurkezteko epea, zazpigarren oinarrian zehaztutako dokumentazioarekin batera, hilabetekoa izango da deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epea kanpo aurkeztutako eskariak ez dira aintzakotzat hartzen.

Izaera puntuala eta/edo ezohikoa duten jarduerak edo programak, aurreikusitako jardueraren hasiera baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko dira. Edozein kasutan ere, urte horretako urriaren 11a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaera eta dokumentazioa Udal erregistroan aurkeztu beharko da, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erdiaren 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 16 artikulua finkatutako beste edozein bide erabil dezakezue.

Seigarrena. Dokumentazioa

— Eskaera-orri ofiziala eta formularioa (I. eranskina).

— Estatutuen fotokopia, eta Elkarteen eta Erakundearen erregistroan legez eraturik eta izena emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa. Salbuetsita daude aurrez aurkeztu duten erakundeak, denbora-tarte horretan aldaketarik egin ez badute. Udalez peko erakundeak ere salbuetsita daude.

— Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunaren Diruzaintza Orokorrekiko betebeharrak fiskalak eguneratuta daudela ziurtatzen duen agiria; horren ordez, betebeharrak fiskalen eta zerga-betebeharrak ordainketa eguneratuta dagoela adierazten duen zinpeko aitortza bat aurkeztu ahal izango da (II. eranskina).. Ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira, komenigarri ikusten bada.

Zazpigarrena. Justifikazioa

Diru-laguntzen erakunde onuradunek honako oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, diru-laguntza emateko ebazpenean adierazitako eguna baino lehen eta, betiere, 2024ko abenduaren 30a baino lehen.

Hala ere, diru-laguntzaren ebazpenean beste data batean aurkeztu ahal izango da memoria edo justifikazio hori.

Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Diruz lagundutako proiektuaren edo programaren memoria-likidazioa (III.eranskina).
- Zinpeko aitorpena, beste administrazio, organismo edo erakunde publikoren batetik diru-laguntza edo laguntzarik jaso den edo ez adierazten duena (II. eranskina).
- Justifikazioko kontua, jarduerak eragindako sarrera eta gastu guztien balantzea (IV. eranskina).
- Fakturak eta ordainagiria/banku-kontuaren mugimenduen laburpena/ tiketa, eta ziurtatutako kopurua honakoaren parekoa izan behar da, gutxienez: emandako diru-laguntza, gehi erakundeak egindako ekarpena(gutxienez ehuneko 20, edo dagokion ebazpenean adierazten dena).
- Jarduera iragartzeko erabilitako programen, kartelen aleak. Karteletan udalaren armarria edo/eta logoa agertu beharko da

Izarra, 2024ko martxoaren 21a

Alkatea

XABIER ALVAREZ DE ARCAYA FERNANDEZ DE LANDA